



IKASKETA ETA ZERBITZUKO
PROIEKTU BAT PARTEKATZEA
ETA HIRI MAILAN GAUZATZEA

GAB gazteak auzoan
barrena





IKASKETA ETA ZERBITZUKO
PROIEKTU BAT PARTEKATZEA
ETA HIRI MAILAN GAUZATZEA

GAB gazteak auzoan
barrena



IKASKETA ETA ZERBITZUKO
PROIEKTU BAT PARTEKATZEA
ETA HIRI MAILAN GAUZATZEA

GAB gazteak auzoan
barrena

A sarrera

Aurkezpena

Argitalpen honen helburuak

Egiletasun partekatua

B errepikatzeko esperientzia

GAB proiektu bat eskalan jartzeko prozesua

I+Z proiektuak eskalan jartzeko pistak

C GAB proiektu baten oinarrizko planteamendua

Proiektuaren izaera

Modalitateak

D Proiektuaren etapak

1 Proiektua elkarrekin definitzeko etapa

2 Gazteak trebatzeko etapa

3 Proiektua gauzatzeko etapa

4 Amaitzeko etapa

A

sarrera



Aurkezpena

Proiektua partekatu, hedatzeko

Aurkeztera gatozkizuen proiektu hau hezkuntzako jarduera egokiak partekatzea **ezinbestekoa dela irmoki defendatzen dugulako sortu genuen**, benetan pentsatzen baitugu partekatzeak ahalbidetu egiten duela jarduera horiek guztiak indartzea, zabaltzea eta hedatzea. Gure gizarte sareratu honetan, gero eta zaharkituagoak daude copyright-ak, are gehiago hezkuntzaren arloan.

Testu honen egileok, **sarean lan egiteko** ahalegin handia egin dugu, helburu honekin: hiri mailan gazteei hiritar aktibo eta konprometitu gisa jarduteko aukera emango dien ikasketa eta zerbitzuko proiektu bat burutzea.

Hasteko, GAB proiektua (Gazteak auzoan Barrena) martxan jartzeko ezinbestekoa da lurralde bateko ikastetxe bat eta gizarte erakunde bat ados jartzea. Gutxieneko lankidetzak hori gabe, ez dago proiekturik.

Ziurrenik errazagoa, eta batez ere, ohikoagoa litzateke ikastetxegizarte erakunde bikote bakoitz bere aldetik aritzea proiektua definitzeko eta sustatzeko orduan, baina horrela eginez, ez genuke gure helburua lortuko, hots, proiektu on bat burutzeaz gain, hori hiri osora hedatzea eta gure hiriko hezkuntza ikur bilakatzea. Nola lortu hori guztia bestelako eragile sozialen eta hezitzaileen lankidetzarik gabe?

Horregatik, GAB proiektuak sistematizatzen hasi ziren lehenengo bikoteek argi eta garbi ikusi zuten horiek partekatzea ezinbestekoa zela. Onegiak ziren ikastetxean edota erakundearen soilik edukitzeko.

Partekatzeko lehen asmo horretatik jaio zen, hain zuzen, **proiektua guztiona egiteko** kaskada prozesua, eta oso harro gaude. Ez bakarrik hezkuntza praktika on bat ezartzeko eta hedatzeko indarra ematen digulako, baizik eta baita ere elkarrekin lan egiteari zentzua eman diogulako eta gustura aritzen garelako.

Gure herrialdean, lankidetzak aberatsa eta anitza da, eta horrek zehaztasunezi, ezberdintasunezi eta ñabardurezi begiratzea eta horiek errespetatzea eskatzen digu, zalantzarik gabe, baina horrez gain, **herritarren erkidegoarekiko konpromisoa sustatzeko baliagarria den guztia partekatzen ikastea ere eskatzen du.**

**Consell de l'Esplai
de L'Hospitalet de Llobregat**

Argitalpen honen helburuak

Argitalpen honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, L'Hospitalet de Llobregateko hainbat gizarte erakunde eta ikastetxe burutzen ari diren Gazteak Auzoan Barrena (GAB) ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuari dagozkion **praktikak sistematizatzea**, eta bestetik, **I+Zko proiektu...**

eta bestetik, **I+Zko proiektu egoki bat eskalan** jartzeko jarraibide zehatzak eta orokorrak ematea, edozein dela proiektuaren gaia edota esparrua, baliagarriak izan daitezkeen praktikak errepikatze aldera.

GAB proiektuaren sistematizazioa

Sistematizazioak ahalbidetu beharko duena:

Hedapena: helburua da GAB proiektua hedatzea eta ezagutzera ematea, hiriko gainerako ikastetxe eta gizarte erakundeak horrelakoak abian jartzera anima daitezen.

I+Zren ezarpena: erakunde eta ikastetxeetako hezkuntza proiektuetan barneratuko diren oinarritzko jardunbide gisa ezarriko dira proiektuok, eta baliagarriak izango dira horien kalitate pedagogikoa hobetzeko.

Sarea: Mundu osoko gizarte erakunde eta ikastetxeen arteko lankidetzak sakondu eta hobetu.

Komunikazioa: proiektuak era eraginkorrean partekatu.

I+Z proiektuen eskalagarritasuna

Ikasketa praktika egokiak, askotan, horiek sustatzen dituzten ikastetxeetara eta gizarte erakundeetara mugatzen dira. Hau da, ez da ahalegin gehiegirik egiten horiek zabaltzeko eta partekatzeko, eta horrenbestez, pertsona gehiagori heltzeko.

Hain zuzen ere, hori izan da azken sei urteotan L'Hospitalet de Llobregat herrian gauzatu den GAB proiektuaren helburua, proiektua hiri mailara irekitzea, alegia, hura martxan jarri zuten hezkuntza eta gizarte eragileetatik haratago.

Horregatik, hiri horretan bizitako prozesutik hainbat pista eta jarraibide atera daitezke, baliagarriak izango direnak proiektu hori beste hirietan eta bestelako proiektutan aplikatu ahal izateko. Hala, kaskada efektua lortzen da, erabat bat datorrena ezagutza elkarrekin eraiki behar dela defendatzen duen egungo ideiarekin.

Egiletasun partekatua

Gogoetak eta esperientziak ekarriz GAB proiektuaren dokumentu hau prestatzen parte hartu duten hogeita hamasei ideak:

Grupo Permanente ApS L'Hospitalet

Roser Batlle

Centre Promotor APS

Blanca Solana

Cap de Negociat Programes per a l'Èxit Escolar

José Carlos Moreno

Pla Educatiu d'Entorn L'Hospitalet

Jordi Caballé

Assessor LIC L'Hospitalet de Llobregat

Artur Vidal

Assessor LIC L'Hospitalet de Llobregat

Bibi Marín

Coordinadora PEE La Florida

María José Pérez Triviño

Coordinadora PEE Pubilla Cases-Can Serra

Enric Roldán Bermejo

Institut Rubió i Ors

Gizarte erakundeak

Silvia Martín

Associació Educativa Ítaca

Felipe Campos

Associació Educativa Ítaca

Esther Guerrero

Fundació Akwaba

Eva Virgili

Fundació Akwaba

Núria Canillas

Esplai Florida

Esther Pería

Esplai La Florida

Mariló Aneas

Esclat-Bellvitge

Laura Crespo

Club Bellvitge

Belén Maján

Esplai Nou Quitxalles

Anna Ramos

Club Sanfeliu

Sílvia Fernández

Club Sanfeliu

Núria Pla

Esplai Can Serra

María Brugués Comas

Educadora Medi Obert Bellvitge

Susagna Escardíbul

Fundació Catalana de l'Esplai

Júlia Matons

Federació Catalana de l'Esplai

Ikastetxeak

Jordi Ibàñez

Eduard Fontserè institutua

Esther Badal

Escuela d'adults Can Serra

Ma. Antònia Cuscó

CE Joan XXIII

Sergi Forgas

Bellvitge institutua

Montse Zaera

Bellvitge institutua

Manel Carmona

Enric d'Ossó ikastetxea

Lourdes Ruiz

Enric d'Ossó ikastetxea

Elena García

Institut Rubió i Ors

Joaquim García

Lope de Vega ikastetxea

Sònia Esteve

Sant Jaume ikastetxea

Virginia Reyes

Eugeni d'Ors institutua

Susanna Bonhoms

Maria Aurèlia Capmany institutua

Constancio Enciso Miguel

Maria Aurèlia Capmany institutua

B

Errepikatze esperientzia





GAB proiektua eskalan jartzeko prozesua

Jatorria eta abiapuntuak

Egun GAB deritzogun proiektua 2007-08 ikasturtean jaio zen, Kataluniako Bigarren Hezkuntzako Hiritartasunerako Hezkuntza ikasgaia ezarri zen urtean, hain zuzen ere.

Urte hartan, Eduard Fontserè eta Esplai La Florida institutuek haien GAB proiektu partekatua sistematizatzeko prozesuari ekin zioten. Hala, Institutuko Batxilergoko ikasleek prestakuntza eta trebakuntza jaso zuten boluntariotzaren

hasapeneterako ikastaroan, eta praktikak egin zituzten, Esplai La Florida ikastetxeko begiraleen laguntzaile gisa.

2007an, Esplai La Florida institutua, I+Z zentro sustatzailearen aholkularitzarekin, erakunde horren laguntza deialdira aurkeztu eta bere proiektua sistematizatzeko laguntza ekonomikoa lortu zuen.

Aldi berean, gizarte erakundeetan egin beharreko praktikak (aurretik Elkartasuna eta Balioak izeneko kredituaren bidez sustatzen zituenak) Bigarren Hezkuntzako ikasgai berri horretan egiteko proposamena barneratzea erabaki zuen Centre d'Estudis Joan XXIII ikastetxeak. Zentroak hiriko bederatzi gizarte erakunderen laguntzarekin burutzen zituen praktikak, eta horietan esperientzia eta eskarmentu izugarria lortu zuen, auzoko neska-mutilenganako eta herriarekiko konpromisoari dagokionez.



2008-09 ikasturtean, hirian Ikasketa eta Zerbitzu sustatzeko baliabideak ezarri ziren, hots, **lurralde taldea** eta **I+Z talde iraunkorra**, Departament d'Ensenyament de la Generalitat, l'Àrea d'Educació de l'Ajuntament de L'Hospitalet de Llobregat eta Centre Promotor ApS-en ekimenez.

Lanerako ezarritako planean, presentzia esanguratsua izan zuen GAB proiektuak, izan ere, I+Zren hastapen ikastaroan azaldu eta eztabaidatu zen, eta tokiko komunikabideetan hedatu zen.

GAB proiektuarekin lortutako emaitza onak ikusita, Esplai La Florida institutuak eta Bellvitge klubak "Centre d'Estudis Joan XXIII zentroaren erakunde laguntzaileetako bat" aisialdiko

beste hiru zentrori deialdia egitea erabaki zuten **2009-10 ikasturtean**. Elkarrekin, dokumentu marko bat prestatu zuten, esperientziak partekatzeko eta horiek bestelako erakunde eta ikastetxeetara hedatzeko xedez.

Behin dokumentu hori prestatuta, ohartu egin ziren lan hori hiriko hezkuntza eta gizarte eragile gehiagotara hedatzea baliagarria izango litzatekeela proiektua hiri mailara hedatzeko.

Horrela, ikasturte bukaeran, proposamen hori aurkeztu zuten hiriko I+Z lurralde taldean, eta hurrengo ikasturterako jardunbide planean barneratzea lortu zuten. Azkenik, GAB proiektua lantzeko berriarazko talde bat sortu zuten.

Auzoa	Erakundeak	Institutuak
La Florida	Esplai La Florida	Eduard Fontserè BHI
Sanfeliu	Club Sanfeliu	Ma Aurèlia Capmany BHI (Cornellà de Llobregat)
Can Serra	Centre d'Esplai Can Serra	Escola d'Adults Can Serra
Bellvitge	Club Bellvitge - Centre Esclat Bellvitge - Esplai Nou Quixalles	Centre d'Estudis Joan XXIII - Bellvitge BHI - Col·legi Enric d'Ossó
Pubilla Cases	Club d'Esplai Pubilla Cases	Rubió i Ors BHI- Lope de Vega ikastetxea
Collblanc- Torrassa	Fundació Akwaba - Associació Educativa Ítaca	IES Margarida Xirgu - Col·legi Sant Jaume - IES Eugeni d'Ors
Guztira	9 erakunde	11 ikastetxe

Aldi berean, ikasturte honen amaieran, Aula aldizkariak artikulu bat argitaratu zuen Eduard Fonserè eta Esplai La Florida institutuek abian jarritako GAB proiektuari buruz. Horrek guztiak proiektuaren garrantzia nabarmendu zuen eta agerian utzi zituen horrelako proiektuak eskalan jartzeko dauden aukerak.

GAB lantaldea

GAB lantaldeak helburu jakin bat zuen, zehazki, GAB proiektua hirian ezartzeko oinarri komunak zehaztea. Horretarako, aurreko ikasturtean prestatutako dokumentu

markoa oinarritzat hartu zuten, guztion artean landu beharreko oinarritzko dokumentu gisa, alegia.

Gizarte erakunde eta ikastetxe parte-hartzaileak

9 gizarte erakundeetako eta 11 ikastetxeetako ordezkariak hartu zuten parte GAB lantaldean. Alde guztiek GAB proiektua garatu zuten, edo garatzen saiatu ziren, eta haien esperientziak eta ezagutzak gainerako taldekideekin partekatu zituzten.

Egindako lanaren emaitza eta aurreikusitako emaitza ukigarria

Lantaldeak 2010eko ekainean prestatutako GAB esparru proiektua abiapuntutzat hartu zuen, xede hauetarako:

- 1 Proiektua bultzatzeko interesa duten erakundeekin partekatzekeo eta elkarrekin lantzekeo; antzemandako hutsuneak, zehaztu beharrekoak edota ezarri beharrekoak.
- 2 Guztion ekarpenekin eta esperientziekin proiektua orekatzeko eta osatzeko, institutuen partaidetza gehituz.
- 3 Emaitza ukigarri gisa: **behin betiko dokumentua prestatzea, hirian erreferente izan dadin.**

Dokumentua prestatzekeo jarraitutako prozesua eta metodologia

Centre Promotor ApS zentro sustatzailearen aholkularitzarekin burutu genuen prozesu osoa. Zehazki, lantaldea koordinatzeaz arduratu zen zentroa, eta baita proiektu berean interesa zuten erakundeen arteko lankidetz ahalbidetzeaz, eta lan hori guztia azken produkturantz bideratzeaz, kasu honetan, guztion artean prestatutako azken dokumentua.

Prozesuak 5 fase izan zituen:

Fasea	Epeak	Lana
1	2010eko azaroaren 12a	Proiektuaren planteamendu orokorrak egitekeo bilera Oinarrizko dokumentuaren analisis, faltan bota diren edukien definizioa eta pertsona edota erakunde bakoitzak egin beharrekeo lanaren banaketa. Lehen bilera horretan gizarte erakundeek soilik hartu zuten parte.
2	2010eko azarotik 2011ko apirilera arte	Lan-denbora, bikoteka (erakundea- institutua). Erakunde bakoitzak konpromisoa hartu zuen bazkidetutako institutuarekin batera ekarpenak egitekeo eta bidaltzekeo, proiektuaren koordinaziorako. Gehienek ez zuten aurretikeo esperientziarik horrelako proiektutan.
3	2011ko apirila	Erakundeek eta institutuek esperientzia metatu zuten eta lehen bilera hartan hartutako konpromisoak bete zituzten. Egindako ekarpenak aztertu ondoren, oinarrizko dokumentua zuzendu egin zen eta parte-hartzaile guztiei helarazi zitzairen.
4	2011ko maiatzaren 13a	Emaitzazko dokumentua eztabaidatzeko bilera Emaitzazko dokumentuaren aurkezpena eta hori eztabaidatzea erakunde eta institutu parte-hartzaileekin. Bilera horretan dokumentuaren atal nagusiak eztabaidatu ziren eta zegozkion aldaketak adostu ziren.
5	2011ko ekaina- iraila.	Behin betiko dokumentua prestatzea. Eztabaidatu ondoren, behin betiko dokumentua egokitu eta idatzi, eta L'Hospitalet de Llobregateko Udalean aurkeztu genuen.

Lortutako emaitzak

Prozesuaren amaieran, askotariko emaitzak lortu zituzten, ukigaiak eta ukiezinak:

- 1 Talde-lanaren ondorioz sortutako azken dokumentua.
- 2 GAB proiektua hiriko gizarte erakunde eta ikastetxe askotara helaraztea.
- 3 Sare-lana indartzea eta erakundeen arteko konfiantza areagotzea.
- 4 Proiektuarekin lotutako jarduera berriak sortzea, artean, Bellvitge auzoan burututako GAB proiektuari amaiera kolektiboa eta dibertigarria ematea, eta ARCE proiektu bat koordinatzea, estatu mailako GAB proiektuak oinarritzat hartuta.



Hedapena

Behin azken dokumentua eskuartean, aurrera pausu berri bat eman behar zen, proiektua ahalik eta gehien hedatzeko. Horretarako, bi proiektu nagusi burutu ziren:

Liburu bat argitaratzea

Consell de l'Esplai kontseiluak dokumentuaren maketazio kostuak bere gain hartu zituen eta L'Hospitalet de Llobregateko Udalaren eta Bartzelonako Diputazioaren laguntza ekonomikoa bilatu zuen. Horri esker, "JxB joves pel barri" liburua argitaratu zen, katalanez, eta ikasketa eta zerbitzuko praktikak ezagutzera emateko eta partekatzeko hainbat ekimenetan banatu zen.

Liburua, egun gazteleraz ere eskuragarri, esteka honetan irakur daiteke: <http://www.l-h.cat/gdocs/d5625454.pdf>

Bideo bat argitaratzea

Centre Promotor ApS zentroak bideo bat prestatu zuen I+Zko proiektu sorta baten parte den proiektu honi buruz hitz egiteko. Bideoa ikusteko: <https://www.youtube.com/watch?v=V9BWse375h8&list=PLcslrUHedr1LCeOWOYYXtrxwWMa4FwUkM&index=2>

Azaldutako bi ekimen horiek agerian uzten dute, berriro ere, ahaleginak batzea eraginkorra dela emaitzak biderkatzeko.



I+Z proiektuak eskalan jartzeko pistak

GAB proiektuan egindakoa beste edozein I+Z proiektura heda daiteke. Zer ekarpen eman diezaguke esperientzia hark, eta nola aplikatu dezakegu bestelako testuingurutan? Prozesuaren arrakastaren hainbat faktore identifikatu daitezke:

1 Egiaztatzea Hasteko, komeni da errepikatzeako prozesuak hura egiaztatzeako eta sustatzeko gaitasuna duten hezkuntza administrazioen oniritzia jasotzea.

2 Osaera pluraleko lantaldeak Errepikatzea are esanguratsuagoa izango da horretan hezkuntza eta gizarte eragile askok parte hartzen badute, herri administrazioa barne.

3 Kanpo aholkularitza Prozesuan zehar kanpoko pertsona baten aholkularitza eta laguntza jasotzeak sare-lana bultzatuko du. Ahal den guztietan, aholkulariak ezagutu beharko luke prozesua garatuko den hiria, eta baita bertako hezkuntza eta gizarte eragileak ere.

4 I+Z arloko prestakuntza Prestakuntza aurretik edo aldi berean jasotzeak partekatutako oinarri bat eskainiko du, eta erraztu egingo ditu eztabaidak eta erabakiak hartzeko prozesuak, prestakuntzari esker, parte-hartzaile guztiek argi izango dutelako zer diren I+Z proiektuak eta zer egin behar den eskalan jarri nahi den hori hobetzeko.



5 Helburu ukigaia Sarean egindako lanak hobeto funtzionatuko du helburu jakin bati jarraitzen badio, adibidez, azken dokumentu bat prestatzea, ekitaldi bat edo gertakari bat.

6 Oinarrizko dokumentua Teorian, helburu ukigaia edota xede zehatza zerotik hasita prestatu badaiteke ere, orokorrean, nahiko eraginkorra da oinarrizko dokumentu bat abiapuntutzat hartzea, eta hura xehatzea eta txikitzea beste berri bat sortzeko.

7 Laneko plan iraunkorra Laneko egutegi bat prestatu behar da, jarraitzeko erraza izango dena eta talde-lana nolabait orekatuko duena. Egutegi horrek barne hartuko ditu aurrez aurreko bilerak eta baita banakako lana ere.

8 Konpromiso pertsonala Prozesua burutzeko ezinbestekoa



da erakundeen eta pertsonen konpromiso irmoa lortzea, alde batetik, badirelako hasiera hasieratik prestatu beharreko proiektuak, eta bestetik, garatuko diren esperientzia praktikoekin elikatuko delako prozesua. Konpromisoa ahula bada, proiektua ezingo da behar bezala burutu edota ez du behar adina sinesgarritasunik edukiko.

9 Komunikatzeko laguntza Esperientziak komunikabideen bitartez zabaltzeak indarra emango dio burututako lanari; ispilu gisa arituko da eta prozesuarekiko loturak areagotuko ditu.

10 Guztiok irabazle Garrantzitsua da prozesuan parte hartuko duten hezkuntza eta gizarte eragile guztiek argi ikus ditzaten prozesu horren bitartez erakundearentzako edota ikastetxerako lor ditzaketen onurak. Horrela egin ezean, prozesua kanpoko presioek eraginda martxan jarri daiteke, bai, baina horrekiko interesa moteldu egingo da poliki-poliki.

C

proiektuaren oinarrizko planteamendua





Proiektuaren izaera

GAB proiektua ikasketa eta zerbitzuko praktika bat da. Horren bitartez,

ikasle gazteek auzoko gizarte erakundeetan boluntario gisa laguntzen dute, eta nabarmen hobetzen dituzte hainbat arlo.

GAB proiektuak edozein I+Z proiekturen ezaugarriak ditu: beharrizan sozial bat, erkidegoari zerbitzua, eta zerbitzu horretatik eratorritako ikasketak.



Gazteak beharrizan sozial jakin bati erantzuna emanaz

GAB proiektuan, auzoko gizarte erakundeek landutako kausa (artean, gizarte, laguntza, hezkuntza, kultura edota ingurumen beharrizanak edo kausak) hartuko da beharrizan sozialtzat. Ikasle gazteen laguntzarekin, erakunde horiek are hobeto lan egin dezakete.

Beharrian "objektiboaz" gain, gazteek konpromiso zehatzak hartzeko aukerak behar dituzte, erabilgarri sentiaraziko dituzten konpromisoak, alegia. Gazte horietako askok, ziurrenik, ez lukete inoiz horrelako proiekturen batean parte hartuko, norbaitek proiektua hurbildu izan ez balie. Gizarte erakundeei dagokienez, gazteen lankidetzak eskuzabalak areagotu egiten ditu horiek etorkizunean boluntario berriak lortzeko aukerak.

Gazteek erkidegoari emandako zerbitzua

Laburbilduz, gazteek gizarte erakundeei haien lana burutzen laguntzen dietela esan daiteke.

Hau da, lurraldeko gizarte erakundeetako kideekin, edo boluntarioekin, borondatez lan egiten dute, erkidegoari zerbitzua eskainiz.

Ikasle gazteek ezin dituzte, inolaz ere, profesionalak ordezkatu, baina hainbat jarduera egiten lagun dezakete, artean:

- Begiraleen laguntzaile gisa aritu, aisialdiko eta kirolko jarduerak sustatzen dituzten erakundeetan.
- Ezgaitasunfisikoak, psikikoak edota zentzumenezkoak dituztenei arreta emateko zerbitzuan lagundu, eta baita eguneko zentroetan zein egoitzetan dauden hirugarren adinekoak.
- Ondare arkitektonikoa edota kulturala babesten

dituzten ingurumeneko erakundeekin lankidetzak.

- Eskola laguntza (irakurketa, matematikak, eta abar) ikastetxeetan, gizarte ekipamendutan, liburategietan, eta abar.
- Helduen prestakuntza iraunkorrean lagundu.

Zerbitzuarekin lotutako ikasketak

Ezinbestekoa da GAB proiektuaren bidez eskuratuko diren ikasketak, gaitasunak, trebetasunak, jarrerak eta balioak curriculumaren barruan sartzea, eta ikastetxearen hezkuntza proiekturako esanguratsuak izan daitezen.

Ezinbestekoa ez, baina oso komenigarria da ikasketa horiek gazteak lantzen ariko diren ikasgai edo arloren batekin lotzea.

Curriculum ikasketez gain, gazteek zerbitzuarekin lotutako berriazko prestakuntza jaso dezakete, zerbitzua ematen hasi aurretik edo ematen ari diren bitartean.

Hauek dira **GAB proiektuaren** bidez lortu nahi diren **hezkuntzako helburu komunak** :

- 1 Hurbileko ingurunea ezagutzea eta bertako beharrian sozialen jakitun izatea.
- 2 Boluntariora deskubritzea eta horren bidez eskura daitezkeen ikasketei buruzko gogoeta egitea.

3 Proiektuan aktiboki parte hartzea eta konpromisoak hartzea.

4 Norberaren gaitasunak eta trebetasunak hobetzea, horiek besteen eskura jarritz.

Izan ere, erkidegoari zerbitzua ematea modu ezin hobea da gazteak auzoan, erakundean edota hirian gizarteratzeko eta errotzeko.

Helburu komun horiei I+Z praktika barne hartuko duen ikasgaiaren hezkuntzako berariazko helburuak gehitu behar zaizkie; eta hezkuntza ez formalaren kasuan, proiektu zehatzaren bidez edo jarduketa esparruaren bidez eskuratuko direnak.

Modalitateak

GAB proiektu bat burutzeko modu bat baino gehiago dago.

Kontuan hartuta gazteen partaidetza eskasa dela auzoko erakundeetan, helburu nagusienetako bat auzoko gazte guztiei proiektuan parte hartzeko aukera ematea izango da. Proiektu horren bidez, gazteek ikasketak eskuratuko dituzte, baliagarriak izango zaizkienak haien gaitasun pertsonalak zein akademikoak hobetzeko, erkidegoari zerbitzua ematen

dieten aldi berean.

Horretarako, oso garrantzitsua da proiektua ezagutzera ematea, elkarre sarearen bidez, gazteekin lan egiten duten auzoko erakunde guztietan, onuradunen kopurua handitzeko: helburua sarean lan egitea da, baina ez bakarrik ikastetxeekin, baizik eta baita auzoko erakundeekin, auzo-elkarreekin, lehen arretarako gizarte zerbitzuekin, sustapen ekonomikorako arloekin, hezkuntzakoekin, baliabide okupazionalerako zentroekin, kirol zentroekin ere.

Proiektua ez da zertan Bigarren Hezkuntzara edota Batxilergora mugatu, alderantziz, beste hezkuntza-mailera eta hezkuntza ez arautura ere hedatu behar da ahalik eta gazte gehiagora iristeko: helduen eskolak, araubide bereziko hezkuntza, hezkuntza berezia...

Horregatik, garrantzitsua da gazteek burutu beharreko jarduerak eta hartu beharreko erantzukizunak parte-hartzailen adinaren, heldutasunaren eta hezkuntza-mailaren arabera egokitzea.

D

proiektuaren etapak



GAB proiektuaren garapenean lau etapa berezi ditugu:



1 etapa: proiektua elkarrekin definitzea

GAB proiektua ikastetxe eta gizarte erakunde baten arteko sare-lanaren adierazpena da. Proiektuaren definizioan, lau alderdi bereizi ditugu:

1 Ikastetxearen eta gizarte erakundearen elkarlana, proiektua definitzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko zereginetan.

2 Gizarte erakundearen barne lana, zerbitzuaren eguneroko zereginak planifikatzeko eta bertako profesionalak edo boluntarioak prestatzeko, esperientzia hori onar dezaten, eta gazteak erakundearen jardueratan behar bezala barneratzeko.

3 Ikastetxearen barne lana, ikasketak prestakuntza curriculumean sartzeko eta irakasleei prestakuntza emateko, esperientzia hori barnera dezaten.

4 Sare-lan komunitarioa. Azkenik, ikastetxea edota gizarte erakundea sare edo hezkuntza programa zabalago batean parte hartzen badu, GAB proiektua ere horren babespean sar daiteke.

Proiektua elkarrekin definitzeko gako nagusiak

Erakundearen eta ikastetxearen arteko elkarlanerako jarraibideak

1 Gizarte erakunde baten eta ikastetxe baten artean GAB proiektu bat adosteko, baliteke tokiko koordinatzaile baten edota proiektua burutuko den sare edota programa komunitarioko arduradunaren laguntza profesionala behar izatea (horrelakorik badago).

2 GAB proiektu orok lidergo argia behar du: hau da, bitartekari bakarra izango dute bai ikastetxeak bai gizarte erakundeak.

3 Ahal bada, idatzizko dokumentu bat abiapuntutzat hartuko da, argia eta erraza izango dena eta, besteak beste, proiektuaren helburuak, jarduerak eta antolaketa barne hartuko dituenak. Dokumentu hori erreferentzia gisa erabiliko dute bi aldeek eta gazteen segurtasuna bermatuko du.

4 Etapa guztiak burutzeko egutegi eta ordutegi oso zehatzak adostu behar dira: gazteen trebakuntza eta prestakuntza (ikus 2. etapa), proiektua gauzatzea (ikus 3. etapa), amaiera (ikus 4. etapa).

5 Garrantzitsua da bakoitzaren erantzukizunak argi eta garbi ezartzea eta zereginak banatzea, hau da, ikastetxeak egin beharrekoa eta erakundeak egin beharrekoa; era berean, erabili beharreko espazioak ere definitu behar dira.

6 Komunikazio-kanalak ezarri behar dira: e-maila, aldizkako bilerak, eta abar.

7 Funtsezkoa da aurrekontu bat prestatzea eta proiektua praktikan jarri ahal izateko erabaki egokiak hartzea.

8 Ahal den guztietan, ikastetxeak eta gizarte erakundeak, elkarrekin, proiektua jendaurrean aurkeztuko dute.

9 Hala badagokio, proiektua berrikusi eta aldatu behar da. Malguak izan behar dugu.

Gizarte erakundekoekin aldeztatik egin beharreko lana:

1 Gerta daiteke pertsona guztiek proiektuan lan egiteko behar adina prestakuntza edota gogoia ez edukitzea, eta hori kontuan hartu behar da. Horregatik, hura behar bezala burutzeko moduan daudenekin jarriko dugu martxan proiektua.

2 Proiektua behar bezala zehaztu eta bideratu ahal izateko, komeni da I+Zren arloan nolabaiteko prestakuntza edukitzea eta antzeko esperientziak ezagutzea.

3 Proiektuan parte hartuko dutenei behar bezala aurkeztu behar zaie proiektua, horien motibazioa areagotzeko: bilera informatiboak, bakoitzaren zereginak, eta abar.

4 Proiektuan parte hartuko duten gizarte erakundeko kideekin batera mamitu eta eztabaidatuko da proiektua.

5 Garrantzitsua da erakundeko kideei ikustaraztea proiektua ez dela haien eguneroko lanari gehituko zaion zeregin artifizial bat, baizik eta eguneroko lanean barneratuko den zerbait.

6 Gizarte erakundeko kideek proiektuarekiko dituzten sententzioak eta balioespenak aldizka atzeraelikatu behar dira.

Ikastetxeko irakasleekin aldeztatik egin beharreko lana:

1 Komeni da GAB proiektua ikastetxeko proiektu gisa ulertzea, eta Eskola Kontseiluaren onespena edukitzea.

2 Proiektuari jarraipena eta sendotasuna emateko, ezinbestekoa da zuzendaritza taldearen babesa lortzea.

3 Proiektua behar bezala zehaztu eta bideratu ahal izateko, komeni da bertan parte hartuko duten irakasleek nolabaiteko prestakuntza edukitzea I+Zren arloan eta antzeko esperientziak ezagutzea.

4 Irakasleen motibazioari dagokionez, garrantzitsua da I+Z esperientziaren bat bizitzeko aukera izan duten gazteen nahiak, gogoak, ilusioak eta testigantzak azpimarratzea.

5 Ahal bada, proiektua curriculumean barneratuko da, adibidez, hiritartasuna, etika, tutoretza, hizkuntza, gizarte zientzia edota antzeko ikasgaietan, eta horrenbestez, ebaluagarria izango da.

2 Gazteak trebatzeko etapa

Gazteen trebakuntzari dagokionez, garrantzitsua da lau arlo hauek kontuan hartzea:

prestakuntza orokorra

aurkezpena eta motibazioa

Sinatutako konpromisoa

berriazko prestakuntza

Prestakuntza orokorra

Gazteek alde zuzenetik eta proiektua garatuko den ikasgaiaren barruan jasoko duten prestakuntza curricularrari deritzo: ezagutzak, jarrerak, balioak, gaitasunak, eta abar. Prestakuntza hori ikastetxeak emango du, ikasgaiaren ordutegiaren barruan, eta irakasleak erabakiko du prestakuntza hori emateko beste profesionalen edo boluntarioen laguntza behar duen ala ez.

Adibidez, proiektua adinekoei arreta emateko zerbitzu batekin lotuta badago, eta Gizalege eta Etika Hezkuntza ikasgaietan prestatuko bada, aurretiko eduki hauek landu daitezke eskolan: Ongizatearen Estatuak, adinekoren egoera orokorra, hirugarren sektorearen rola... gai horiek guztiak ikasgaietan lantzekoak izango dira, GAB proiektua egin ala ez.

Aurkezpena eta motibazioa

Aldez aurreko prestakuntzaren konpondu ondoren, ikasleei GAB proiektua aurkeztea ikasgaiaren barruan egin daiteke, edota irakasleak egoki ikusiko duen beste espazio batean.

Helburua da gazteak motibatzea, honetarako:

- Beharrian sozial bat badagoela ikus dezaten eta horri erantzuna eman nahian diharduen gizarte erakundearekin bat egin dezaten.

- Laguntzeko eta hori egin nahi izateko gai direla ikus dezaten.
- Balizko ekarpenen definizioan parte hartzea, eta proiektua bere egitea.

Baliagarria izan daiteke zerbitzua garatuko den gizarte erakundea arduratzea proiektua gazteei aurkezteaz eta horien motibazioa bilatzeaz. Ikastetxeok ez diren bestelako helduekin harremanetan jartzea eta hitz egitea lagungarria izan daiteke gazteak proiektura atxikitzea lortzeko.

Konpromiso pertsonala sinatzea

Besteei zerbitzua emateak erantzukizun-maila jakin bat badu, eta hori indartzeko beharrezkoa da horrekiko konpromisoa hartzea eta sinatzea. Eta hori horrela da hainbat arrazoiengatik:

- Konpromiso-orri bat sinatzeak banakoak dagokion erantzukizuna onartzen duela egiaztatzen duelako, GAB proiektua kolektiboa bada ere.
- Gazteen hitzari garrantzia ematen zaiolako, eta agerian uzten duelako badirela horien lan solidarioa behar dutenak.
- Dokumentu bat sinatzeak gazteek aurretiko gogoeta egitea bultzatzen duelako, eta horrenbestez, hartutako konpromisoa helduagoa izango delako.

Berariazko prestakuntza

Zerbitzuarekin nolabaiteko lotura duen ikasgaia egon arren, gazteek **gutxieneko berariazko prestakuntza** behar dute, zeregina ahalik eta baldintza onenetan burutzeko. Prestakuntza hori ikastetxean bertan jaso daiteke, edo gizarte erakundean, edo bietan, baina beti dagokion irakaslearen edo tutorearen adostasunarekin.

Gazteek behar duten berariazko prestakuntzak oinarrizko hainbat gai hartzen ditu barne, artean:

- Zerbitzua burutuko den **erakundea ezagutzea** (jarduerak, balioak, arauak, eta abar), eta baita erakundearen jarduera esparru komunitarioa.
- Proiektuaren bidez burutuko dituzten **ekintza zehatzetarako** prestakuntza: hartzaileei arreta, jarduerak burutzen jakitea, eta abar. Hori guztia lagungarria izango zaie gazteei egokitutako lana behar bezala eta konfiantzaz egiteko.
- **Gaitasun sozialak eta komunikatiboak** barne hartuko dituen zeharkako prestakuntza ere funtsezkoa izango da, edozein dela eman beharreko zerbitzua: adetasuna, jendetasuna, hizkera zuzena erabiltzea, lotsa gainditzea, eta abar.

Adibide bat jarriko dugu: Boluntariotzaren Hastapeneterako Ikastaroa

Boluntariotzaren Hastapeneterako Ikastaroa baliabide egokia izan daiteke 16 urtetik gorako gazteei (hori baita ikastaroan parte hartu ahal izateko gutxieneko adina) aurretiko prestakuntza emateko. Batxilergoko, prestakuntza zikloetako zein helduen eta beste batzuen prestakuntzarako ikasleek har dezakete parte ikastaro horretan, eta hura bukatzean, diploma bat jasoko dute Kataluniako Generalitataren eskutik.

Ikastaroak **12 ordu** irauten ditu, eta boluntariotzako ekintzeekin lotutako prestakuntza orokorra eskaintzen du. Horrexegatik, hain zuzen, edukia egokitu egin beharko da, gazteek gizarte erakundean burutuko duten zerbitzuaren arabera. Hona hemen egokitzapen horren adibide bat:

Boluntariotzaren Hastapeneterako Ikastaroa

Atal orokorra

- 1 Zer da guretzat "boluntario izatea"?
- 2 Boluntarioaren jarrerak eta balioak, eskubideak eta betebeharrak.
- 3 Elkarre mugimendua eta boluntariotza

Berriazko atala

- 1 Gizarte erakundearekin egingo den zerbitzua eta hartzaileak
- 2 Gizarte erakundearen laguntzailea, eta egin ditzakeen lanak.
- 3 Lan edo zeregin horiek egiteko trebezia pertsonalak.

Ezaugarriak:

Diploma: Dagokion Herri Administrazioak xede horretarako baimendutako prestakuntza eskolak (begiraleen prestakuntza, boluntariotzako prestakuntza...) banatuko du. Diploma horiek gazteei entregatzea proiektua amaitzeko etaparen barruan sartu behar da.

Irakasleak: Eskola zerbitzua emango duen gizarte erakundearekin eta ikastetxearekin koordinatuko da boluntariotzako prestakuntza, eta ikastaroa gizarte erakundeko kideek emango dute.

Taldearen tamaina: Prestatu beharreko gazte kopurua handiegia bada, hainbat talde egingo dira, eta alderantziz, beharrezkoa bada, hainbat talde elkartu egingo dira ikastaroa osatu ahal izateko.

Hedapena: Ikastaroa bi zatitan bana daiteke, baina lehenik praktikak egingo dira, hau da, zerbitzua burutzea. Horrela, orokorragoa eta akademikoagoa izango den zatia egiteko unean, gazteak gai izango dira eduki horiek bititutakoarekin lotzeko.

Gazteen trebakuntzarekin lotutako gako nagusiak

1 GAB proiektua prestatzeko etapa garrantzitsua da, eta balioa du bere horretan. Hasiera hasieratik, gazteek ikusi egingo dute biziko duten esperientziaren **balio bikoitza**: esperientzia prestatzailea eta solidarioa izango da.

2 Proiektu bat aurrenekoz martxan jartzen denean, **gazteak ekiteko motibatze**ko moduari buruzko gogoeta egin behar da. Ikastetxean ohiko bilakatuko denean, ordea, ez da beharrezkoa izango horrelakorik egitea. Motibatzeko erabil daitezkeen baliabide batzuk: adin gehiagoko taldeek bizitutako esperientziak aprobetxatzea edo erabiltzea, kanpoko pertsonen esku hartzea, gazteen kodeak eta hizkerak erabiltzea, eta abar.

3 Berehala ekiteko gogoak moteldu egin dezake gazteek eskura ditzaketen ikasketekiko kontzientzia eta konpromisoa: ekiteko gogoak ez ezik, behar bezalako lana egiteko gogoak ere izan behar dute gazteek, ikasketak indartzeko edota bizitzan erabilgarriak izango zaizkien gauza berriak ikasteko.

4 Bestetik, neska eta mutil bakoitzaren gaitasun pertsonalak kontuan hartuko dira, aurrerago eskatuko zaiena ezartzeko unean. Horregatik, ezinbestekoa da banakako gaitasun horiek (musikarako gaitasuna, adieraztekoa, kirolerakoa, antolatzeak, teknologiarakoa, aisialdirakoa...) zerbitzua burutzen hasi aurretik antzematea eta gazteak gaitasun horiek ezartzera animatzea.

5 Gazteak trebatzeko fase honetan, aurretiko prestakuntza gako izango da, baina era berean, kontuan hartu behar dugu zerbitzua burutzen den bitartean ere bestelako prestakuntza bat ere jasoko dutela, praktikaren bidez eskuratuko dutena, alegia. Horrenbestez, komeni da prestakuntza-energiak behar bezala banatzea proiektu osoan zehar.

6 Esan bezala, 16 urtetik beherakoek ezin dute horrelako ikastaroetan parte hartu, horregatik, espazio bat bilatu beharko da ikasle horiei gizarte erakundeari buruzko berariazko prestakuntza emateko: gizarte erakundearen izaera, helburuak, eta bete beharreko zereginetarako prestatzeko modua.

7 Adin txikikoek familiaren baimena beharko dute konpromisoa sinatzeko. Baimena lortzeko modurik errazena, baimena emateko orri bat prestatzea da, baina agian ez da oso egokia 16 urtetik gorako kasuan horrelako orriak erabiltzea, eta horrenbestez, gazteen autonomia- eta heldutasun-mailarekin bat etorriko diren bestelako baliabideak bilatu beharko ditugu.

3 Zerbitzua burutzeko etapa

Etapa honetan, arreta berezia jarri behar da grafikoan adierazita dauden gaitan.

Guztiak elkarlotuta daude eta ezinbestekoak dira gazteek jardueren kalitatea bermatzeko eta indartzeko.



GAB proiektuen bidez emandako lau zerbitzuren adibidea:

L'Hospitalet de Llobregaten eta beste hainbat herritan arrakastaz burututako lau zerbitzu hartu ditugu adibidetzat.

Zerbitzu horiek guztiek ezaugarri komunak dituzte; alde batetik, beharizan soziala nabaria eta begi bistakoa da, eta zerbitzua burutzeko aukera ugari dituzte.

1 Batxilergoko ikasle gazteak aisialdirako eguneko zentro batean.

2 DBHko 4. mailako ikasleak adinekoekin.

3 DBHko 3. eta 4. mailako gazteak adinekoei informatika irakasten.

4 DBHko 4. mailako gazteak ezgaituentzako prestakuntza tailer batean.

<p>1 Batxilergoko ikasle gazteak aisialdirako eguneko zentro batean</p>	<p>Gazteek astean arratsalde bat (16:00etatik 20:00etara) eskainiko dioten proiektuari, hiru hileko oso batean zehar.</p>	<p>Gazte bakoitzari begirale eta jarduera jakin bat egokituko zaio.</p>	<p>Aisialdiko zentroak jarduera aukeratzeko aukera emango die eta konpromiso-orrria sinatzea eskatuko die. Gaztea adinez txikikoa bada, konpromiso-orrri horretan, aitaren edo amaren sinadura ere jaso beharko da.</p>	<p>Gazteek begiraleekin batera prestatu, burutu eta ebaluatuko dute jarduera: 1 Neska-mutilen bila joan eskolara.</p>	<p>2 Gela, materialak, eta abarrekoak prestatu. 3 Iristen direnean, neska-mutilei arreta eta askaria eman. 4 Begiraleari jarduera edo tailerra zuzentzen lagundu</p>	<p>5 Gela jaso 6 Jardueraren balorazioa begiraleekin batera.</p>
<p>2 DBHko 4. mailako ikasleak adinekoekin</p>	<p>Ikasturte osoan zehar, gazteek astean arratsalde bat eskainiko diote zerbitzuari (2 ordu).</p>	<p>Gazteek hiru garren adineko egoitzaren animatzailea hartuko dute erreferentetzat.</p>	<p>Egoitzako hainbat jardueratan parte hartuko dute, betiere arduradunari laguntza emanez: 1 Jai-egun handietako dinamizazioa: Eguberria, Inauteriak, auzoko jaiak...</p>	<p>2 Tailer eta jarduera ludikoak: eskulanak, bingoa, jolasak. 3 Fisioterapia saioak. 4 Memoria lantzeko jolasak.</p>		<p>5 Nahi izanez gero, afariak eman ditzateke.</p>
<p>3 DBHko 3. eta 4. mailako gazteak adinekoei informatika irakasten</p>	<p>Gazteek bederatzitik prestakuntza-saio jakoko dituzte, eta horietan arreta berezia emango zaio adinekoei egin beharreko lanaren metodologiari.</p>	<p>Gazteek astean arratsalde bat eskainiko diote zerbitzuari, 17:00etatik 19:00etara. Guztira, 20 saio egingo dituzte.</p>	<p>2 edo 3 laguneko taldeak egingo dira eta proiektuaren arduradunak aldizkako laguntza emango die.</p>		<p>Gazteek banakako tutoretzak izango dituzte proiektuaren arduradunekin, saioak taldearen eskarrietara egokitze koetagertakari aurre egiteko moduak zehazteko.</p>	
<p>4 DBHko 4. mailako gazteak ezgaituentzako prestakuntza tailer batean</p>	<p>Ikasturte osoan zehar, gazteek astean arratsalde bat eskainiko diote zerbitzuari, 15:00etatik 17:00etara.</p>	<p>Gazteek laguntza emango diote hezitzaileari.</p>	<p>Prestakuntza tailerrak aukera ematen du jarduera hautatzeko, baina bai gazteek eta bai heldu arduradunak konpromiso-orrria sinatu beharko dute.</p>	<p>Hezitzaileak burutu beharreko jarduerak azalduko dizkie eta horiek egiteko aholkuak emango dizkie: 1 Gela prestatu 2 Ezgaituei banakako laguntza eman</p>		<p>3 Hezitzaileari lagundu jarduera edo tailerra egiten 4 Gela jaso.</p>

Zerbitzua gauzatzeko etaparen gakoak

1 Zerbitzuaren iraupena **eta intentsitatea** ikastetxeko irakaslearen edo tutorearen curriculum-plangintzaren arabera izango da.

2 Zerbitzua **eskola orduetan** ematea ez da beti posible izango, eta horregatik, behar bezala prestatu eta aztertu behar da gazteei eta familiei aurkeztuko zaien proposamena.

3 Oso garrantzitsua da erakundeak har dezakeen **ikasle kopurua** kontuan hartzea. Erakundeak ikasle gutxi hartzeko gaitasuna edukitzea arazoa izan daiteke ikastetxearentzako, bestalde, gehiegi hartzeko gaitasuna badu, baliteke guztiontzako zeregin esanguratsurik ez aurkitzea.

4 Hezkuntza balioa eman behar zaio gazteek **zerbitzuarekiko hartutako konpromisoari eta horretan parte hartzeari**. Zentzu horretan, hutsegite guztiak justifikatu beharko dira; gainera, hutsegiteak aldeztu aurretik abisatu behar dira, barkamena eskatuko da eta hutsegitearen ondorioz galdutakoa berreskuratuko da, beharrezkoa bada.

5 Bestetik, ez da beharrezkoa gazteen laguntza hezkuntza, gizarte edota laguntza zereginetara soilik bideratzea. Izan ere, gazteek **bestelako zereginetan ere lagun dezakete**, adibidez, gizarte erakundearen edota proiektuaren webgunea edo bloga sortu edota argazki edo bideo erreportaje bat presatu...

6 Gazteek argi eta garbi ikusi behar dute haien laguntza **baliagarria eta behar-beharrezkoa** dela. Gazteak gai izan behar dira gizarte erakundearen bidez ematen duten laguntza zertarako balio duen eta zergatik den baliagarria azaltzeko.

7 Zerbitzua burutzen duten bitartean, **gazteek aukera izan behar dute haien gaitasun pertsonalak erabiltzeko eta erakusteko**. Izan ere, ez luke zentzurik gaitasun horiek besteen zerbitzura jartzeko eta gazteen auto-estimua areagotzeko aukera galtzea.

8 Profesionalei eta erakundeetako boluntarioei zuzendutako laguntzaz gain, komenigarria litzateke gazteei **zeregin jakin bat** esleitzea, hau da, haiek bakarrik egingo duten zer edo zer ezartzea, horren bidez areagotu egingo delako gazteen konpromisoa eta gazteek argiago ikusiko dituztelako lankidetzaren nondik norakoak.

9 Esperientziaren sistematizazioari eta gogoetari dagokionez, gazteek **Jardueraren egutegia** egin dezakete, banaka edo taldean, baina betiere irakasleekin eta gizarte erakundearekin adostuta.

10 Praktiketako **prestakuntza** zehazteko, egunero egindakoari buruzko gogoeta eta balioespena egin daiteke, edota aldizkako balorazio saioak.

11 Behin pertsonen irudien erabilerari buruzko gai legalak konpondu, esperientziaren **erregistroaz** arduratu behar dugu. Zehazki, zerbitzua burutzen ari diren bitartean gazteen argazkiak, bideoak, erreportajeak eta antzekoak hartu eta erregistroan gordeko ditugu. Material hori baliagarria izango zaigu, ez bakarrik proiektuan parte hartuko duten gazteekin gogoeta eta balorazioa egiteko, baizik eta beste gazteak motibatuz ere.

4 Amaitzeko etapa

Etapa honetan hiru gai nagusi bereiz daitezke:



Ebaluazioa

Proiektua ebaluatzeko hainbat ikuspuntu bildu eta kontuan hartu behar dira:

1 Gazteen azken ebaluazioa: azken ebaluazio hori jarduera gehigarri baten esparruan egin daiteke, adibidez, txango batean. Gainera, interesgarria litzateke egindakoak izango duen jarraipenari buruzko gogoeta ere egitea.

2 Ikastetxearen **ebaluazioa**, proiektuak ikastetxeko jardueren barne dagoen heinean.

3 Gizarte erakundearen **ebaluazioa**, ez bakarrik erakundeko profesional eta boluntarioek egindakoa, baizik eta kontuan hartuko dituenak, ahal bada, gazteek emandako zerbitzuaren hartzaileen iritzia.

4 Ikastetxearen eta gizarte erakundearen **ebaluazioa**, aldi berean hezitzailea eta soziala den proiektua partekatu duten heinean.

5 Ebaluazio komunitarioa, **kasuan kasu eta ahal bada**, esperientzia programaren esparru zabalago batean garatu bada.

Ospakizuna

Behar-beharrezkoa da gazteek zerbitzuan zehar egindako lana eta arduraldia ospatzea eta aitortzea. Ospakizuna baliagarria izango da GAB proiektuaren jarraipena beharrezkoa dela agerian uzteko, eta baita ere sare komunitarioko bestelako eragileen parte hartzea bultzatzeko.

Proiektuaren amaiera ospatzeko era asko daude; ez dira baztertzailerak eta elkarrekin konbinatu daitezke:

1 Ikastetxearen ospakizuna: ikasturtearen amaieran berriazko jardura bat presta daiteke esperientzia bizi duten gazteekin batera. Gainera, gazte helduagoak edota senideak ospakizun horretan parte hartzera gonbida daitezke.

2 Gizarte erakundearen **ospakizuna**: adibidez, merienda bat prestatu, ziurtagiriak banatzeko ekitaldi bat... Proiektuan parte hartu duten gazteen senideek ere ekitaldi horretan parte har dezakete.

3 Ospakizuna **hirian edo auzoan**: lurraldean horrelako proiektuetan parte hartu duten hainbat gazte talde badaude, horiek guztiak bilduko dituen jai bat presta daiteke.

Etorkizuna

Behin esperientzia amaituta, zer gertatuko da gazteekin? Zer eskain diezaiekegu? Lau aukera daude:

1	Gazteak gizarte erakundearen geratuko dira , bertan lan egiten duten profesionalen edo boluntarioen laguntzaile gisa.
2	Gazteek ikastetxeko bestelako proiektuak bultzatuko dituzte , irakasleekin elkarlanean, txikienei laguntzen, eta abar.
3	Gazteak auzoko beste elkarteetara hurbil daitezke , horregatik komeni da atea irekita uztea bestelako proiektu sozialekin harremanetan jar daitezen.
4	Bestetik, haien ekimenez bestelako proiektu sozialak abian jar ditzakete , agian, hasiera batean gizarte erakunderen baten estalpean.

GAB proiektu eta gero, adibidez, udako prestakuntza intentsibo bat proposatu dakiogegu taldeari; modu ona izan daiteke proiektu berri bat inspiratzeko edota aurretik hartutako konpromisoari eusteko.

Amaitzeko etapan kontuan hartu beharrekoak

1 Behin GAB proiektua amaituta, gazteek gizarte erakundearekin elkarlanean **jarraitzeko asmoa agertzen badute**:

- Artatutako pertsonen osatutako (neska-mutilak, helduak, ezgaituak, eta abar) masa kritikoa badagoela bermatu behar da.
- Gizarte erakundearen gutxieneko prestakuntza eskakizunetara sarbidea bermatu behar zaie, eta prestakuntza hori jasotzeko inbertitu beharreko denbora eta zenbatekoa argitu behar da.

2 Gizarte erakundeak ez badu gazte guztiak hartzeko gaitasunik, edota gazteek bestelako erakundeak ezagutzeko nahia agertzen badute, **hirian edo auzoan gazteak barneratzeko gaitasuna eta gogoia duten elkarteak** badaudela bermatu behar da.

3 Luzera begira, eta GAB proiektua amaituta, interesgarria litzateke **lankidetzako harreman iraunkorrak** ezartzea gazteak hartzeko prest egon daitezkeen auzoko elkarte guztiekin. Garrantzitsua da gazteak eragile aktibo gisa sartzeari sare komunitarioetan, eta parte hartzeko aukera anitzak izatea, horietan haien interesak, gaitasunak eta talentua gara ditzaten.



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK

Associació Educativa Ítaca

Centre d'Estudis Joan XXIII.

Enric d'Ossó ikastetxea

Esplai La Florida

Bellvitgeko institutua

DISEINUA

Eva Anguera

ARGITARATZAILEA

Zerbikas Fundazioa

ISBN 978-84-9726-772-4

DL BI-1716-2013



GAB gazteak auzoan barrena

IKASKETA ETA ZERBITZUKO
PROIEKTU BAT PARTEKATZEA
ETA HIRI ESKALAN GAUZATZEA

LAGUNTZAILEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Departamento de Educación, Juventud y Empleo
Departamento de Empleo, Juventud y Empleo
Departamento de Empleo, Juventud y Empleo

EKIMENA



CONSEIL
DE L'ESPLAI
L'Hospitalak



zerbikas

Ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario